Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Agurtzane Arizmendi Txapartegi

Urnieta, Gipuzkoa (1933)



Aurkibidea

Biografia



Urnietan jaio zen eta gurasoak ere bertakoak zituen biak. Lauzpabost urterekin hasita moja frantsesekin ikasi zuen. Eskolatik atera zenean, josten ikasten hasi zen izebekin. Izebak herriko jostun ezagunenetakoak zituen eta "alfa" makina bat propio erosi omen zuten beretzat. Bordatzeko ikastaro bat opari eman zioten makina erosteagatik eta gustura ibili zen Donostian lan horretan trebatzen. Jantziak errematatzea eta bordatzea zen bere gustuko lana eta hogeita bi urterekin Donostian aritu zen horretan lanean. Enkarguz eskatutako ezkontzako doteak ere egiten zituen berak. Hogeita hamaika urterekin ezkondu zen Andoainera eta geroztik bertan bizi izan da.

Zintak

URN-032

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Ansa, Ainhoa
- **Data**: 2010-07-15
- **Iraupena**: 34 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k)**: Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Josten ikasi eta gustura aritu

- **Erref**: URN-032/003
- **Iraupena**: 0:02:25. **Hasi**: 00:02:42. **Bukatu**: 00:05:07
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
14 urte zituela, mojen eskolatik atera, eta josten ikasten aritu zen izebarekin.

Alfa makina erosi zuten propio beretzat. Bordatzea jostea baino gehiago gustatzen zitzaion. Bere lanekin erakusketa egin izan du. Arreo ugari bordatu izan ditu Agurtzanek. Arreoan zer sartzen zen azaltzen du.

2. Izebarekin josten ikasten aritu zeneko giroa eta lanak

- **Erref**: URN-032/005
- **Iraupena**: 0:02:42. **Hasi**: 00:06:30. **Bukatu**: 00:09:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Izebarengana baserrietako neska asko joaten ziren josten ikastera. Orduko giroaz hitz egiten du. Lehen, baserrietatik zer enkargu izaten zituzten aipatzen du. Agurtzane askotan joan izan da Donostiara izebari materiala erosten laguntzera; orduko dendak.

3. Defuntuentzako prestatutako jantziak

- **Erref**: URN-032/006
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:09:12. **Bukatu**: 00:10:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Defuntuak janzten aritu izan da Agurtzane. Telak beraiek erosi eta jantziak beraiek egiten zituzten; goizetik arratsalderako prest egon zitezen, gorpua dotore janzteko. Beraien etxean mugimendu handia egon izan da beti.

4. Bere ezkontzako arreoa

- **Erref**: URN-032/009
- **Iraupena**: 0:01:58. **Hasi**: 00:12:18. **Bukatu**: 00:14:16
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:
Agurtzaneren ezkontzako arreoa nolakoa izan zen azaltzen du.

5. Tela lantzeko moduak

- **Erref**: URN-032/013
- **Iraupena**: 0:01:05. **Hasi**: 00:17:08. **Bukatu**: 00:18:13
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:
Tela nola almidoitzen zuten azaltzen du. Komunioko jantziek parpailak izan ohi zituzten.

6. Ezkontzako soinekoak eta apaingarriak, lehen

- **Erref**: URN-032/014
- **Iraupena**: 0:04:29. **Hasi**: 00:18:13. **Bukatu**: 00:22:42
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:
Lehen, ezkontzako soinekoak beltzak izan ohi ziren. Orduko soinekoak deskribatzen ditu. Ezkontzako kapelak alokatu egiten zituzten Donostian. Loresorten bila Agurtzane joaten zen Donostiara. Lehen, telefonorik gabe moldatzen ziren, sinestezina badirudi ere.

7. Josi bitarteko kantak

- **Erref**: URN-032/019
- **Iraupena**: 0:01:11. **Hasi**: 00:26:28. **Bukatu**: 00:27:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:
Josi bitartean, kantuan aritzen ziren; orduko kantak aipatzen ditu.

Transkripzioa
- Ta kantari, gu beti kantari aitzen giñan, gu beti kantari. Entrebista bat ittea etorri zian behin, oain dala hogei bat urte o ni hemendik jun nintzanta, Andoaindikan. Esan ziyen "Zuek ze itten zenduen?" "A! Guk kantatu, kantatu, guk josi ta kantatu, kantatu, abestu, josi ta abestu, josi ta abestu..."
- Ta ze kantatzen zenittuzten?
- Zeanak, "Maritxu nora zuaz" ta kanta hoik. Ta geo bersuak edo liburun bat o bazun, liburun bat, ta handikan "ikusten dezu goizian", hoik denak'e bai. Geo," mutil koskor bat itsu aurreko", ta bersuak eta... Geo zeanak'e bai, Genovevanak'e bai.
- Nola zien hoik, Genovevan bertsuak?
- Zeak, Jesus, Maria... Genoveva, zein dittuzu hoik? Esan diyozu ba Rokei, galdetu diyozu ba leheno...
- Markesaren alaba.
- Markesaren alaba, Markesaren alabak eta hoi denak, hoik denak.

8. "Ikusten dezu" abestia

- **Erref**: URN-032/020
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:27:39. **Bukatu**: 00:28:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:
"Ikusten dezu" abesten du.

9. Garaiaren arabera, izen bat edo beste

- **Erref**: URN-032/024
- **Iraupena**: 0:01:18. **Hasi**: 00:31:32. **Bukatu**: 00:32:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak

Laburpena:
Agurtzane du izena, eta ahizpak Josebe. Gerra etorri zenean, izena aldarazi egin zieten; baina, gerora, berriro euskaratu ahal izan zuten.

Transkripzioa
- Zure izenan inguruan'e galdetuko nizuke, garai hartan... Garai hartan errexa zan izen hoi jartzen?
- Ez dakat ideaik'e, ideaik'e ez dakat, baiño gu biyoidi...
- Gerra aurre hortan jaio ziñan zu?
- Bai, hiru urte. Ta nere ahizpa're gerratian jaiyua zan, ta harek'e Joxebe izena zun. Hari're ez dakit nolaz jarriko ziyen euskeraz. Gero gerra etorri zanian kanbiatu, kanbiatzeko esan zuen, herriko etxea jun ta kanbiatu in biher izandu zun aittak; eta gero ostea etorri zan legia, ta ostea juzgadua jun giñan ta kanbiatu gendun.
- Ta zuri ere aldatu zizuen izena?
- Bai.
- Nola jarri zizuen?
- Bai, Rosario, Maria Rosario, nei jarri ziten.
- Ta noiz atera zan lege hoi? Gerra ondoren...
- Bai, Francok irabazi zunian gerra, gerra ondorenian. Baiñon ez zuen kasoik in e? Nei monjatan ta denian, denian, Agurne esaten ziden, monjetan ta zeatu zanian, etorri zan legia. Baiño "pa' las cosas oficiales", jun in biher izandu zan kanbiatzea.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-11-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com